

ANALISIA



Motxiladun jeltzaleak



Axier Lopez

@axierL

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Ez da ahuntzaren gaurdiko eztula kaleko giro politiko apalduko Euskal Herri "normalizatu" honetan 100.000 lagun kalera ateratzea, are gehiago eguraldi petralak PPren nahiekin bat egiten duenean. Iazko 80.000 lagunek, 2014ko 130.000ek edo aurtengo manifestariak, kopuruak kopuru, agerian utzi dute preso politikoen aurkako salbuespen neurriak bertan behera uzteko nahia sakon errotuta dagoela. Euskal Herriko aldarrikapenik zabalena eta transbertsalena izaten jarraitzen du.

Larunbatekoa "ezker abertzalearen ekitaldia" dela esanez solitarioan tranpetan ari da EAJ. Ezker abertzaleak jende kopuru hori mobilizatzeko gaitasuna balu, beste kezka batzuk izango lituzke EAJk. Ezetza-aren arrazoiak nekez azalduko diete agintari jeltzaleek hilerok-espereetara milaka kilometro egin behar dituzten umeei, adibidez. Ala horiek ere ezker abertzalekoak dira? Sakabanaketaren aurka kalera ez ateratzeko arrazoiak politikagintza instituzionalaren mahai-jokoan aurkituko ditugu. PPrekiko alde bikotasunaren garaiotan, ez da "abertzaleekin" batasuna irudikatzen unea, argazki baterako eta egun batez bada ere. Zalantzarik ez da jeltzaleak sakabanaketari amaiera ematea eta preso gaixoen etxeratzearen alde daudela. Baina hori lortzeko ez dute arriskuan jarriko Espainiaren negoziaketak eta EAEko gobernagarri-

tasunaren makuluekiko "rollo ona". Motxila hori astuna bezain gozoa dute.

Parisen, Madril en ifrentzua

Euskal Herriko gatazka armatu eta politikoa ez da Pirinioen bi aldeetan berdina. Pernandoren egia hori, Luhusoko ekintzaileen lan eskergak agerian utzi eta Parisek presoak hurbilduko dituela dioten hotsek berretsi dute egunotan. Frantziako Gobernuak bere sentitzen ez duen aspaldiko harri txintxor bat gainetik kentzeko aukera paregabea du, bake artisauen bueltan lortutako adostasun zabalari esker. Eta gainera, eskuak libreago izango ditu ate joka duen beste gatazka bati ekiteko: Korsika. Korsikarrak, gu ez bezala, badira "barne aferra" Parisko agintari chauvinistentzat.

Ipar Euskal Herriko gizarte zibilaren eta alderdi politikoen arteko adostasunak go-raipatzen dira Hegoaldean, bide horrek ere noizbait oihartzun praktikorik izan dezan. Baina Madril ez da Paris. Espainiako Estatuaren erantzun historikoa autoritarioa eta mendekuzalea izan da gai honetan. Eta egun gerra baten garailetzat dute beren burua. Txema Matanzas preso ohiak Hala Bedin adierazi bezala, "gerrate batean galtzaileak ez ditu sekula idazten armistizioaren baldintzak; Estatu espainiarrak finkatu ditu 'bakearen' terminoak". Bakearen prezio sadiko hori presoen senideek ordaintzen jarraitzen dute, beste askoren artean. Elefante hori mugiarazteko, alderdi politikoen arteko adostasuna baino indar gehiago beharko dugu Hego Euskal Herrian.

EKONOMIAREN TALAIAN

Pentsioak bermatzea



Juan Mari Arregi

Pentsioak informazioaren zurrumbiloaren erdian daude. Haien etorkizuna "arriskuan" dago, pentsioen kutxa "agortzen" ari da, eta Espainiako Gobernuak 15.000 milioi euro "txertatu" ditu 2018an ordaindu ahal izateko. Bitartean, pentsionistek euren nominak izoztuta dituzte, hilabete batez beste 2 euro ziztrin gehiago besterik ez baitituzte jasotzen (%0,25). Pentsionisten zati handienak mila euro baino gutxiago kobratzen du, dozenaka milaka lagunek 650 euro ere ez... Eta gainera, bi aparteko paga estretatik bat kentzeko aukeraz hitz egiten ari dira.

Pedro Sánchezen PSOEk proposamena egin du, bankuei eta finantza eragiketei zerga bat ezarri eta pentsioak ordaintzen laguntzeko. Zerga bikoitz horrekin 2.000 milioi euro bilduko lirarteke urtean eta Gizarte Segurantzaren defizita (15.500 milioi euro) murriztuko luke. Sánchezek zera argudiatu du: "Espainiarrek bankuen erreskatean euren izerdiaz lagundu bazuten, justuena da orain bankuek laguntzea pentsioen sistema mantentzen".

El País egunkaria buru duen fronte mediatikoak -bankuen zerbitzura noski- proposamena arbuiatu du, "populista" eta "okerra" dela esanez. Ikusteko dago proposamena elektoralista ala zintzoa den. Zintzoa balitz, aliantzak bilatu beharko lituzke. Eta are zintzoagoa litzateke beste proposamen bat egingo balu pentsionistei PFEZa ezabatu eta Estatuaren zenbait egitura murrizteko, bere alderdiari eragingo bailioke horrek: Errege Etxearen gastuak, Defentsarenak, alderdi politikoenak (aholkulariak, auto ofizialak, dietak, bidaiak...) -eta beren pribilegiozko pentsioak-, sindikatu eta alderdiei ematen zaizkien subentzioak ezabatu... Burokrazia horretan milaka milioi euro xahutzen dira, pentsioen sistema sostengatzeko ezinbestekoak.